

**Analisia****Enric Rimbau****Iritzia****Alberto  
Lopez Basaguren****Elkarrizketa****Esther Vivas****Aurrez aurre****Salvador Cardús i Ros  
Josep Ramoneda**

# Katalunia badoa

**Josep Ramoneda eta Salvador Cardús**

# Bi ikuspegi eta ondorio bat: Independentzia? Bai ala ez bozkatu beharra



Ariketa zaila jarri diegu Josep Ramoneda eta Salvador Cardúsi: ez hainbeste Katalunia gaur dagoen lekura ekarri dutenak argitzea, baizik eta hemendik aurrerakoak nondik nora joango diren igartzen saiatzea.

■ **Egilea: Aritz Galarraga**  
**Argazkiak: Dani Codino**

Ez da analisirako momenturik onena, zurrunbilo-aren barruan. Zaila da distantzia hartzea, gauzak perspektibarekin ikustea. Baina errakuntza tartea gutxienekora ekartzeaz ari bagara, nor hoberik Katalunian Ramoneda eta Cardús baino. Eta kontsultari buruzkoa izan behar zuen lehen galderak, ea independentziari buruzko galdeketa bat den gaur egunean Kataluniako prozesu subiranistak izan dezakeen irtenbide posible bakarra. Baina aipatzen dugun zailtasuna agerian uztera dator berriz aktualitatea: gero eta gehiago entzuten dira azken egunotan alde bakarreko independentzia adierazpena irtenbide gisa ikusten duten ahotsak.

**Alde bakarreko independentzia adierazpena. Eszenatoki berri horretan kokatu behar gara dagoeneko?**

**SALVADOR CARDUS:** Orain artean kontsultaren kokalekua. Baina ematen du udatik hona Espainiak erabaki duela kontsultarik ez dela izango, ez direla hortik pasako. Eta horrek jartzen gaitu egoera diferente batean: arazoa konponduko duena ez da izango kontsulta; kontrara, arazoa bilakatu da kontsulta bat eskatu izana edo egin nahi izatea. Alde bakarreko independentzia adierazpena ez zait iruditzen erantzun on bat,

---

**Azala:** Garbine Ubeda Goikoetxea · **Azaleko argazkia:** Jordi Estaragués (Via Catalana) · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

**LARRUN pentsamendu aldizkaria** ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.392. zenbakiarekin banatua, 2013ko azaroaren 24an)





edo ez behintzat erabakigarria. Zer gertatuko litzateke biharamunean? Ez dut uste denik bidea, beste pareta bat da.

**JOSEP RAMONEDA:** Garbi dago etapak oso azkar erretzen ari direla. Teorikoki orain beharko genuke itun fiskalaren legegintzaldia. Baina etapa hori bukatu zen egun batetik bestera, Artur Masen eta Mariano Rajoyren arteko bilera baten ondotik, 2012ko Diadaren ostean. Itun fiskaletik pasa ginen kontsultara. Eta orain ematen du kontsulta amortizatuta dagoela, ez baitago inolaz ere egiten utziko dutenaren seinalerik. Legez egin daitekeen zerbait egiteko inertzia bat dago gurean, eta eragotzi ezin den gauza bakarra da hauteskundeak deitzea. Eta emaitza izatea gehiengo bat, alde bakarreko independentzia adierazpenaren ideiarekin aurkeztu dena. Baina hauteskundeak plebisitario bilakatzeak ez dut

uste gauzak konpontzen lagunduko lukeenik, nahasmena sortzeko joera baitute. Kontsulta bat oso argia da, bai edo ez, bi horiek dira erantzunak.

**Kontsulta bat litzateke, beraz, Kataluniako egoera desbuxatuko lukeena?**

**J.R.:** Gisa honetako arazo baten aurrean zaude-nean, erdibideko irteerak desagertu egiten dira; kasu honetan, Madrilek aukerarik ematen ez diolako erdibideko ezein soluziori. Statu quoa edo independentzia, ez dago beste aukerarik. Eta hori bakarrik konpon daiteke bozkatzan, eta bozkatzan modu argi batean. Bestela nahasmen eta zailtasun elementu asko sartzen dira tartean.

**S.C.:** Egongo da gizarte zibiletik formula ez legalak proposatuko dituenik, udaletatik antolatutako



**JOSEP RAMONEDA I MOLINS**  
**FILOSOFOA ETA KAZETARIA**

Cervera, 1949. 1989tik, hogeit hamar urtez CCCB Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroko zuzendari izana. PSC Kataluniako Alderdi Sozialistako ideologo nagusitzat hartua, nahiz gaur egunean ikuspegi oso kritikoa duen alderdiak hartutako norabidearekin. Hainbat libururen egilea da, halaber; azkena, *La izquierda necesaria* (2012). *El País* eta *Ara* egunkariekin, eta *Ser* irrati katearekin kolaboratzen du.

kontsulta bat, adibidez, ahalik eta berme gehienarekin baina legearen mugetatik kanpokoa. Halako proposamenak aterako dira, mugimendu independentistari ere ez zaizkio gustatzen hauteskunde plebiszitarioak, emaitza lausotzen dutelako. Gabonetarako baliteke galdera eta data izatea, baina jartzen ditugun egun berean izango dugu ezezkoa. Eta kontsulta ere erre egingo da.

**Zein litzateke, beraz, irtenbiderik egokiena?**

J.R.: Kontsulta adostu bat, emaitza argi eta nabarmena utziko lukeena, negoziazio prozesu ahalik eta adiskidetsuena abiatzeko.

S.C.: Eredua britainarra, arrazionalak izaten saiatzea prozeduretan. Horrek ez du esan nahi norberak bere interesak ez defendatzea, eta negoziatio prozesua luze, zail, konplikatu izatea. Baina ea zein ateratzen den ondoren. Hori litzateke irteerarik arrazoizkoena.

J.R.: Eta Espainiaren partetik inteligenteena: irabazteko duten aukera bakarra da. Politikoki ondo egingo balute erreferendum bat, irabazteko aukera lukete.

S.C.: Orain urtebete onartu izan balute, irabaziko zuten. Guk ez dugu egun irabazia, baina orain urtebete haiek bai, posizio malgu, negoziatzaile batekin, desaktibatuta geundeko. Orain ja ez.

J.R.: Eta hala ere irabazteko aukera bakarra hori dute...

**Ez du ematen aukera hori aprobetxatuko dutenik...**

J.R.: Badira berriz aztertu beharko genituzkeen datu objektibo batzuk. Lehena: inoiz besterik pentsatu badugu ere, orain oso argi dago Espainiak konfrontazioaren bidea jokatzeko hautua hartu duela. Gerta daiteke azken orduko beldur batek jarrera aldaraztea, baina oraintxe bertan garbi du PPK: Espainia mailako hauteskunde egoera salbatzeko aukera ikusten du eta bide batez PSOE itotzekoa, Konstituzio erreforma nimen bat proposatu duenez, aski patriotikoa ez dela argudiatuta. Bigarrena, nik beti uste izan dut CiUk momenturen batean atzera egingo zuela. Baina gaur egunean, eta informazio zuzenengatik, Mas presidentek prozesu honekin bukaeraino joateko erabaki pertsonala hartu duela komentatuta nago. Bi elementu horiek egin dute egutegia uste genuena baino azkarrago joatea.

Hain zuzen ere, nola ikusten duzue prozesu subiranistaren garapena, gertaerek hartu duten abiada? Zuk, Salvador, inoiz gerrilla gerra baten logikarekin konparatu izan duzu.

J.R.: Orain kontuan hartzeko tentsio bat gertatu-ko dela uste dut. Prozesuaren azkartze natural bat gertatuko da, baina sektore indartsuen aldetiko moteltze saiakera garrantzitsu batek indargabetu nahi izango du. Gelditu ez, batzuek ez dutelako nahi eta besteek ez dakitelako nola. Baina bai dena gerta dadila ahalik eta motelen.

S.C.: Seguru izango dela saiakera, baina Espainiaren “dena edo ezer ez” estrategia frustagarria da hori nahi dutenentzat. Espainiak nolabaiteko kontraprestazio baterako aukera emango balu, agian, baina garbi dago ezetz, ez dela kontsolazio saririk ere izango. Ez dago mugimendu borondaterik, eta, beraz, kontua hoztu nahi badute ere ezin izango dute. Espainiak hartu duen jarrera gogorak azkartzen ditu epeak.

Eta zer iruditzen zaizue Espainiako Gobernuak prozesu subiranista gelditzeko hartu duen estrategia? Josep, zuk inoiz esan izan duzu arazo politiko bati irtenbide politikoa eman behar zaiola. Ez ote den beranduegi...

J.R.: Nahasten dira gauza asko. Printzipio kontu bat, hasteko: badira mugak dituzten gauza batzuk, eta hau da bat. Gero, oraindik ez dago mobilizazio honen kontzientzia erabatekorik; Espainia aldean jarraitzen dute pentsatzen hau guztia lurrunduko dela. Eta azkenik, uste dute Convergència alderdia Pujolen garaiko berbera dela. Hala, ondorioztatzen dute: lehenago edo beranduago beren lekura itzuliko dira, eta, bestela, Mas erditik kentzean bueltatuko dira. Obsesioa dute Mas erorarazteko. Baina absurdua da, izango balute arazoaren dimentsio argi bat, ikusiko lukete orain Junqueras dela goraka doan liderra. Ikusi beharko lukete egoera pixka bat konplexuagoa dela. Eta gero garrantzia handiko mugimendu sozial bati aurpegira zuzen ez begi-



### **SALVADOR CARDÚS I ROS** **SOZIOLOGOA ETA KAZETARIA**

Terrassa, 1954. Universitat Autònoma de Barcelonako irakasle. Institut d'Estudis Catalaneko kide. Trantsizio Nazionalerako Aholku Batzordean parte hartzen du. Independentista, “%20 izatera iristen ez ginenetik”. Liburu ugari idatzi du, adibidez, *El camí de la independència* (2010). *La Vanguardia* eta *Ara*-ko kolaboratzailea da, Catalunya Ràdiokoa. Radio Euskadikoa ere bai, sozialistak lehendakaritzara iritsi ziren arte.

ratzeko jarrera dago, beste eskala batean M15eko mugimenduekin egin zuten gauza bertsua, existituko ez balitz bezala.

S.C.: Madril musean ari da, eta hordagoa eman du: dena edo ezer ez. Desafioa da ea nork iraute duen gehiago. Batez ere ohore kontu bat da. Esaten dutenean independentzia “ezinezkoa da”, ez





Salvador Cardús

**Orain urtebete onartu izan balute, irabaziko zuten. Guk ez dugu egun irabazia, baina orain urtebete haiek bai, posizio malgu, negoziatzaile batekin, desaktibatuta geundeke. Orain ja ez”**

da argudio bat. Ez da esatea “ez zaigu komeni”, “kaltegarri izango zaigu” halako eta halakoengatik. Jada ez da beldurra ere. “Ez, eta kito”. Eta uste dute horrek egoera zailean jartzen gaituela. Ez dira konturatzen hemen kontrakoa eragiten duela, ezetz badiote arrazoirik eman gabe, hemen indartu egiten dela independentzia beste aukerarik ez dagoelako ustea. Ez gaitu ahultzen edo zentzatz; alderantziz, hartutako erabakia berresten digu.

J.R.: “Ezinezkoa da” horrek bi arazo larri ditu: lehena, historiaren aurkakoa dela; zenbat gauza ezinezko izan dira posible historian? Eta bigarrena, ezinezkoaren printzipioa inteligentziaren negazioa dela, txirotasun eta autoritarismo handikoa.

**Noraino irits daitezke, ordea, erantzun horrekin?**

S.C.: Amildegiraino. Bietako bat erortzen denean, listo, zerbait gertatuko da. Ez da imajinatzen erraza zer. Baina ea zein den hanka sartzen lehena. Pentsa uneraren batean Espainiak autonomia katalana bertan behera uzten duela. Listo. Irits daiteke momentu bat onargarria dena baino haragoko keinu bat egiten dutena, eta orduan haiek erortzen dira amildegitik. Eta hori gertatzen denean pasako da beste herrialde guztietan pasa dena –Alemanian harresiaren erortarekin, Sobiet Batasunaren desagitearekin–, gertatu baino bost minutu lehenagora arte

pentsaezina zena. Eta gero ba, bai, posible zen, gertatu da, eta gainera ez da munduaren akabera. Eta pasako dugu bizitza guztia gertatu dena eta nola gertatu den azaltzen saiatzen, eta zergatik ez ginen izan aurreikusteko kapaz.

J.R.: Espainiaren arriskurik handiena da Europak onartu ezin izango duen pausuren bat ematea. Momentuz Europak jokatzeko duen dagokion papearra: zuen artean konpondu. Espainiak muga gainditzen duen momentuan, hori alda daiteke.

S.C.: Europak hau barne arazo gisa hartzea eta posizio hartze garbi bat ez izatea argiki da gure aldekoa. Normalena litzateke esatea, bai, barne-arazoa dela, baina Estatuak ez direla ukitzen. Ez dira ia sartu, eta hori abiapuntu ona iruditzen zait.

**Eta nola da posible Madrildik, ez bakarrik Gobernutik, erantzun baikor bakar bat ere eman ez izana, proposamen erakargarri txikiena ere planteatu ez izana Kataluniarentzat?**

J.R.: Hasteko, inertzia oso sakonak daude. Eta, gero, zer eskain dezakete? Sistema ukitu gabe, ezin dute ezer eskaini. Zapaterok behin esan zuen, arrazoiarekin: autonomia estatuaren arazoa da gastua oso deszentralizatua dagoela eta erabakimen politikoa oso zentralizatua. Horiek horrela, edo oparitzen duzu erabakimen politiko asko, edo ezin duzu ezer eskaini. Eta horretarako borondaterik ez da inondik ere ikusten.

S.C.: Gauza da haiek sortu dituztela atzera egitea ezinezkoa egiten duten diskurtso baldintza batzuk: eraman duzu Estatutua Konstituzionalera, hazi zara diskurtso antikatalanista baten gainean, kideko komunikabideak –ia guztiak– animatu dituzu gauzak muturreraino eramatera. Pentsa, PSOEek konstituzio erreforma txiki bat proposatu du hemendik bi urterako, eta jada zalantzan jarri dute bere patriotismoa. Imaginatu orain Rajoyk esango balu elkarrizketa abiatu nahi duela ikusteko ea konpon daitekeen, ez ja afera



Josep Ramoneda

**‘Ezinezkoa da’ horrek bi arazo larri ditu: lehena, historiaren aurkakoa dela; zenbat gauza ezinezko izan dira posible historian? Eta bigarrena, ezinezkoaren printzipioa inteligentziaren negazioa dela, txirotasun eta autoritarismo handikoa”**

politikoa, soilik afera fiskala. Gurutziltzatuko dute. Haiek eraman dute dena maniobrarako tarterik ez dagoen leku batera. Momentu hauetan haiek dira egoeraren preso, gu baino. Noski, gurean ere eraman dute kontua atzera egiterik ez den puntu batera. Artur Masek eta Oriol Junquerasek, adibidez, bere etorkizuna abentura honetan hipotekatu dute.

**Prozesu hau Kataluniako mapa politikoa aldatzen ari dela diote inkestek.**

J.R.: CiU eta PSC beheraka doazen bi alderdi dira, Estatu autonomikoaren egitura ordezkatzeko duten alderdiak diren neurrian. Etapa hori gainditu dugu. PSC likidazio bidean dago, ez dago berreskuratzetik. Beste gauza bat jaioko da, baina PSCrenak egin du. Eta CiUren nola-halako haustura bat ekidinezina iruditzen zait, Unióko zati batek orain mantentzen dituen posizioak mantentzen baditu. Kataluniako Autonomiaren ardatz ziren CiU eta PSC beste garai batekoak dira. Eta euren papera diferentea izango da hemendik aurrera, mutazio handiak jasango dituzte.

S.C.: Ez bakarrik bi horiek, mapa parlamentario guztiak. ERCK ez du bizitzarik independentziarik harago. Katalunia independente batean ERCK beste pelikula bat esplikatu beharko du. Junquerasek orain duen lidergoa da herrialdea independentziara eramateko, ez alderdian mantentzeko. Junqueras, Mas... independentziara eramango gaituen jendea da, baina gero desagertu egingo

dira. ICV egonkor dagoela dirudi, baina gatazka atzeratzen ari direlako. Egiten dituzten proposamen guztiak dira prozesua moteltzeko, atzeratzeko beren buruari egin ez dioten galdera handia, eta egin beharko dutena, ez zailtasunik pasa gabe. Arduratzeko moduko bi mugimendu dituzte inguruan, gainera, CUP eta Procés Constituent. Despistatzen badira jango dituzte. Gero daukagu PP bat erabat iparririk gabea, lider erabat amortizatuarekin. Ciutadans ez da alderdi bat ere, lider oportunistak bakarrik da, aukera profitatzen jakin duena, aldaketa momentu hau. Baina momentua pasatzen denean, alde batera edo bestera, zentzurik izango ez duena.

**Epe motzean, izango da Katalunia independente-rik?**

J.R.: Auskalo. Orain jada ez dago atzerapausu sostengarririk. Baina ez dakidana da nola egingo dugun posible ezinezko dena.

S.C.: Uste dut baietz. Gauzak dauden bezala, ez dakit zerk gera dezakeen prozesu hau. Gobernuen arteko negoziatio bat balitz, akaso... baina ezin dut imajinatu apustu hau egin duen jendeak orain itun fiskal batengatik aldatuko duenik. Are orain proiektu alternatibo, ilusionagarriak ez dagoela.



**Enric Rimbau**

Kazetaria  
eta analista politikoa

Itzulpena: Xabier Letona

## Atzera bueltarik ez duen prozesua

**D**uela zortzi bat urte elkarrizketa interesgarria egin nion –bere erantzunengatik, ez nire galderengatik– Xavier Rubert de Ventós filosofo katalanari eta ondorengo berriketaldian Katalunia independentearen aukera aipatu zidan, prozesu historikoak batzuetan aurreikusi ezinezkoak direla eta dinamika sozialak bat-batean aktibatu eta azkartzen direla. Nekez irudika nezakeen berba haien doinu profetikoa. Gaur egun, eztabaida independentista Espainia eta Kataluniako agenda politikoaren muinean dago, urte batzuk lehenago sinesgaitza litzatekeena.

Zalantzez beteriko prozesuan murgilduak, ia ezinezkoa da nola bukatuko den aurreikustea. Baina, hori ziur, ezer ez da berdin izango. Espainiaren batasun apurtezinaren defendatzaile sutsu eta itxienek ere badakite orain artekoak ez duela balio. Katalunia-Espainia harremanak krisi sistematikoa bizi du gaur egun eta krisi garrantzitsu guztiak moduan, une zehatz batean eta aldi berean lerrokatu diren hainbat zioen ondorio da.

Nora hel gaitezkeen argitzeko, non gauden eta nondik gatozen zehaztea komeni da. Bizi dugun unean, Kataluniako jarduera politikoaren ohiko eskema hautsia dago. Trantsizioaz geroztik, katalanismo hegemonikoa Madrilgo gobernuekiko itunen ubidean abiatu zen. Bigarren Errepublikan azaleratutako katalanismo errepublikarra eta aurrerazalea erabat burugabetu zuen Franco jeneralaren altxamendu faxistak eta birrindua geratu zen ondorengo 40 urteko diktaduran. Trantsizioan zehar katalanismo posibilista agertu zen, frankismoak txikitutako herriaren arima berreraikitzeke lana eta pragmatismo itunzalearen artean kokatua. Bere baitan biltzen zuen XX.

mendearen hasieran Prat de la Riba y Cambo Ligak biltzen zuen katalanismo kontserbadorearen tradizioa. Sintesia Jordi Pulen megalidergotik eguneratu zen, CiU koalizioaren eskutik. Berak moldatu zituen XX. mendeko azken laurdenean hegemonikoa izango zen ereduaren arkitektura eta doinua. Pujolismoaren “berreraikuntza nazionalaren” prozesua eta Espainiako Estatuaren modernizazioa eta birsorkuntza paraleloan eman ziren. “Quid pro quo” gisako moldean finkatutako harremana izan zen. Espainiako Estatuari falta zitzaizkion moderazio ekonomikoa eta modernitatea eskaintzen zizkion nazionalismo katalanak. Trukean, erreforma deszentralizatzaileak lortzen zituen eta hauen bidez Generalitateak eskumen berriak eskuratzen zituen apurka, hasieran lehendakariaren bulegoa baino askoz gehiago ez zirenak. *Hobe bat eskuan, anzoan bi baino* estrategiari jarraitu zitzaion.

Harreman honen itzalera sortu zen bipartidismoan oinarritutako alderdi sistema Katalunian: CiU Legebiltzarreko alderdi nagusia zen eta PSC oposizio buru eta udalerrri handietan nagusi. Bisagra



gisako alderdi batzuek osatzen zuten markoa: ERCko independentistak, ekosozialistak –PSU– Ceko eurokomunisten oinordekoak– eta PP.

Arkitektura honen ondorioz, botere autonomiko nagusiekin estuki lotutako finantza eta ekonomia sistema egikaritu zen. Eta horrela, Kataluniako egitura hauek, Espainiako Estatuaren goi mailako finantza eta funtzionaritza egiturekin elikatu-tako menpeko harreman politikoen bidez, inter-es partekatuen marko bat sortu zen. Sektore ekonomiko horien hautua garbia izan zen, negozio aukera eskaintza politikoen truke.

## FORMULA KRISIAN SARTZEN DA

Sistema hori krisian sartu da eta hori da aldarrikatzen ari direna gaur egun estu eta larri ezer gutxi den hirugarren bidearekin –ez federala, ez konfederala, ez guztiz alderantzizkoa– eztabaida independentista geldiarazi gura dutenek. Askoren ustez, Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Estatuaren aurka emandako epai suntsitzailerak izan zen inflexio puntua, baina hori sinplifikatzea dela uste dut. Seguru eragile garrantzitsua izan dela, baina ez dut uste azaltzen duenik katalan independentismoaren egungo hazkunde indartsua.

José María Aznarren bigarren agintaldian, PPK gehiengo osoa zuela, Espainiako Estatuaren egiturek guztiz galdu zuten frankismoaren oinordeko izatearen konplexua eta bukatutzat eman zuten beren modernizazio prozesua. Nazionalismo periferikoak jadanik ez ziren ezinbestean jasan beharreko gaitzak, enbarazu besterik ez ziren. Eta Estatuak tentsio birzentralizatzaileari ekin zion. Erdiguneak ez zuen jada periferiaren beharrik. Negoziazioa amaitu zen eta berarekin trukearen estrategia.

Katalunian 23 urtez agindu ondoren, pujolismoak ere higadura zantzuak ageri zituen, eta Kataluniako esparru politikoa irauli egin zen. Hiruko

gobernuek –PSC, ERC eta ICV– oposizioa eraman zuten CiU eta hor elikatu zuen honek bere diskurtso soberanista, neurri esanguratsu batean ERCk sozialistekin zuen ituna kontraesanean jartzeko. Aldi berean, José Luis Rodríguez Zapateroren PSOEK garaipena lortu zuen bat-batean eta horrek ekarri zuen ameskeria, Kataluniak eta Espainiak harreman berri baterako formula adostu ahal izango zutela. Baina ez, bere agintaldian itxi zen estatutuaren atea. CiUren katalanismo kontserbadoreak Kataluniaren presentzia normaldu nahi izan zuen Espainian eta orain ikusten zuen nola Espainiak bere birsortze historikoa amaitu zuen helburu historiko hori lortu barik.

Porrot horri gehitu behar zaizkio finantza defizitaren arazo kronikoa eta Katalunian inbertsio publikoetarako Estatuak erakusten duen etengabeko uzurtasuna. Defizit fiskala jasanezina da eta Kataluniako ekonomia odolusten du: Espainiak urtero biltzen duenetik 16.000 milioi euro ez dira Kataluniara itzultzen. Kataluniako BPGren %8 eta %11 artekoa da defizit fiskala.

Jazarpen ekonomiko hau, ahultasun politikoa eta Estatuak Kataluniarekiko duen etengabeko leialtasun eza dira independentismoaren elikagaiak. Prozesu historikoetan gertatzen den legez, hainbat zio dira. Erratuak dira, beraz, uste dutenak hazkunde hau faktore soilik ekonomikoek eragiten dutela. Eta are erratuagoa da Marianoren Rajoyren exekutiboak pentsatzen duena, denbora dilatatu eta Espainiako ekonomiaren hobekuntzaren zain egonda, sukar independentista desaktibatu egingo dela.

## MAPA POLITIKOAREN MUTAZIOA

Horrek guztiak hankaz gora jarri du Kataluniako mapa politikoa. Hegemonikoak izan diren CiUk eta PSCk etengabeko galera jasan dute hauteskundeetan. Federazio nazionalistak higadura handia izan du krisi garaian gobernatzearen

ondorioz, nahiz eta oraindik lurralde hedapen ona izaten jarraitzen duen. Baina bi bazkideen arteko desberdintasuna da federazioaren higitzaile handiena, bereziki Unióko buruzagi Josep Antonio Duran i Lleidak prozesu independentistaren aurka etengabe erakutsi duen jarreragatik, eta federazioaren norabide aldaketari ere sinesgarritasuna kentzen diona. Eta sinesgarritasun eza horrek ERCko Oriol Junquerasi egin dio mesede, alderdi errepublikarrean indarrez sartu eta barne bakea ekarri duen buruzagia. Gaur egun, Mas lehendakaria eta Junquerasen arteko konexio maila handia da.

PSCk identitate krisi larria bizi du. Egungo bere idazkari Pere Navaroren zehaztugabetasunak eta erabaki eskubidea zehazteari buruzko zantzek nebulosa moduko batera eraman dituzte sozialistak. Konstituzioan izaera federaleko erreforma defendatzen ari dira bakardade latzean, PSOEn beraren sostengu barik, eta horrek ere ez die laguntzen. Zehaztugabetasun horren ondorioz gero eta ugariagoak dira bere baitan katalanistenak izan diren sektoreen desertzioak, zeintzuen aburuz, alderdiak bira egin beharko luke tesi soberanistagoetara, gizarteko sektore zabalek egin duten moduan.

PP ere higadura sufritzen ari da eta ikusten du Albert Riberak gidatzen duen C's (Ciutadans) alderdiak lasai asko eskura dezakeela PPn eta PSCn argi eta garbi unionista den esparruaren botoa. C's-k jakin izan du bere diskurtsoa estetikoki birsortzen eta horrekin Katalunian konplexurik ez duen espainolismoaren diskurtsoa modernizatu du. Azkenik, ICV ekosozialista eta CUP independentista lehian ari dira "antisistema" deitu ohi den hautesleria erakartzearen. ICVk, alabaina, ez du oraindik bere rola ondo definitu. Bere hautesleriaren osaketagatik, oraindik zehazgabetasun maila bat erakusten du Katalunian ireki den prozesu politikoarekiko. Egia da alderdiak kontsulta eta erabaki eskubideak onartu dituela, baina oraindik kostatzen zaio definitzea zer erabaki horri buruz. Bere baitan badira

independentziaren aldekoak, baina baita ere federalismoaren aldekoak eta, beraz, horrek PSCren tesietara gerturatzen ditu. CUP aldiz, formazio independentista da, eta alde horretatik diskurtso argia eta zehatza du.

## ETA ORAIN ZER?

Oso konplexua da Kataluniako bilakaera politikoa aurreikustea. Artur Masek jarraitzen du esaten kontsulta egin ahal izateko, urte bukaera aurretik kontsentsuz erabakitako data eta galdera iragarriko dituela. Orain galderan dago eztabaida. Gobernuan Masen bazkide den ERCren arabera, galderak eta erantzunak argiak izan behar dute, eta independentziari buruz galdetu behar du, Kataluniako Batzar Nazionalak (ANC) bultzatutako herritarren mobilizazio erraldoietan argi eskatu den moduan. CiUk ez ditu baztertu gura leunagoak diren formulak, "estatu subiranoa" edo "berezko estatua" erabiliz "estatu independentea" erabili beharrean, horrela kontsulta egitearen aldekoak bai, baina independentistak ez diren sektoreekin kontsentsu zabalagoak egituratuko dituelakoan.

Era batera edo bestera, Masek badaki atzerapauso batek bere sinesgarritasuna larriki zauri dezakeela bere hautesleria abertzaleenaren aurrean, eta horrek are eta gehiago erraztu dezakeela ERCren hazkundera alternatiba gisa. Lehia hor dagoen arren, errepublikarrak jakitun dira CiUren hondoratzea ez litzatekeela ona prozesu independentistarentzat, nazionalista kontserbadoreek prozesura erakartzen dituztelako sektore ekonomiko eta politiko kontserbadoreak, Junquerasen alderdiak nekez erakarriko litzuzkeenak. Neurri batean, horrek azaltzen du bi alderdien artean duten akordio parlamentarioa.

Galdera edozein dela ere, azkenean plazaratzen bada, ikusi beharko da zein konbentzimendu mailarekin egin nahi duen kontsulta Masen exekutiboak. Zentzu horretan, Oriol Junqueras



**Aurten irailaren 11n egindako Via Catalanaren irudi bat (El Pertus eskualdekoa); ekimenak sekulako arrakasta izan zuen.**

eta bere alderdiak argi utzi dute prest direla koalizio gobernua osatzeko baldin eta honek kontsulta aurrera aterako badu. Norabide horretan, errepublikarrek Generalitateko 2014ko aurrekontuak sostengatu dituzte prozesuaren aurrean gobernu katalanari egonkortasuna eman asmoz.

Datorren urteko eszenatokia, beraz, erabat zabalik dago. Oso posible da 2013a kontsultarako galdera eta data formalarekin bukatzea. Baina Katalunian, denak dira jakitun, bereziki sektore independentistenen artean, Espainiaren erreakzioa ere berehalakoa eta tinkoa izan daitekeela, izan kontsulta bera inpugnatuz, edo are eta neurri bereziagoekin.

Une horretatik aurrera ikusiko da mugimendu independentistaren egiazko indarra, zeren eta batzuek trenen talka gisa definitu dutena –Katalunian beldurra eragitako asmo batekin ere erabilia– saihestezina izan liteke. Batetik, hor dago dekadentzian dagoen Estatu baten mugiezintasun esklerotikoa, aldaketa txikienari ere atea ixten dizkiona. Duran i Lleidarena moduko sektore moderatuenak eta *statu quo*aren aldeko diren eskaeren aurrean amore emateko inongo asmorik ez duen Estatu da. Izan ere, Estatutuaren erreformarekin eskuratu ez zena lortzeko denboraz kanpo diren bertsio berriak besterik ez dira sektore hauen aldarrikapenak. Gizarte katalanaren sektore oso zabalarentzat jadanik ez dira

nahikoak. Erreformen garaia iragan da. Eta gaur egun hirugarren bideak defendatzen dituztenak, funtsean, Estatutuaren erreformaren abiapuntura itzultzea eskaintzen ari dira.

Beraz, galdera argi batekin eta 2014rako kontsulta datarekin, posible da CiUren eta ERCren arteko koalizio gobernua osatzea, helburu gisa erreferendum independentista aurrera ateratzea izango lukeena. Espainiak seguruenik erakutsiko duen erabateko oposizioaren aurrean izan daitezkeen B planei buruz inork ez du txintik esaten. Baina bai Masek bai Oriol Junquerasek, argi utzi dute herritarrek erakutsitako borondatea hautetsontzietan bideratuko dela. Datozen Europako hauteskundeetara koalizio zabal batean joatea baztertuta dago ia, CDC bakarrik da horren aldeko eta, batez ere, aurreikusitako danbatekoaren salbagarri gisa, baina UDC, ICV, CUP ere ERCek ez dute garbi ikusten. Plebiszitu hauteskundeak deitzea, ez da geratzen beste aukera handirik. Eta horren aurrean, hainbeste dira jokoan sar daitezkeen aldagaiak, edo zelako aurreikuspen egitea politika fikzio hutsa izan daitekeela. Galdera plazaratzeari buruzko akordioa nola iristen den itxarotea da uneon egin daitezkeen bakarra. Eta hori, momentuz, soilik Kataluniako formazio politikoaren esku dago. Hori izango da aldebakarreko lehen erabaki subiranoa, eta horren ondoren, ezer ez da berdin izango.



**Esther Vivas**

Prozesu Konstituziogilearen bultzagilea

## “Sekulako aukera dugu orden sozial berria eraikitzeko”



**Nola ikusten duzu orain arte independentzia prozesuak egin duen ibilbidea?**

Mugimendu independentistak Kataluniako gizartearen gehiengoa ordezkatzen du eta gizartearen borondate demokratikoa islatzea da bere ezaugarriarik garrantzitsuenak. CiUk independentismoaz mozorrotu du bere murrizketa politika gogorra, baina Masek sekulako zartakoa hartu zuen iazko hauteskundeetan. Gai sozialek indarra hartu dute Kataluniako mugimendu soberanistan. Mugimendu soberanistak presio egiten dio CiUri independentziaren bidean, baina aho biko harremana mantentzen du berarekin eta lidergoa eskaintzen dio Masi, eta nire ikuspegitik hori ez da egokia, balizko Katalunia independente hori betiko klase nagusien menpe geratuko litzatekeelako.

**K**apitalismoaren aurkako Ezkerra Ekimeneko zerrenda buru izan zen 2009ko Europako Legebiltzarreko hauteskundeetan. 1975ean jaioa, ekokazetaria da, ikerlaria eta mugimendu sozial ugariako aktibista. Teresa Forcades eta Arcadi Oliveresekin batera, Prozesu Konstituziogilearen bultzagileetakoa. Arrakasta handia izan duen *Sense por* (Beldur barik) liburua idatzi berri du Forcadesekin.

■ **Egilea: Xabier Letona**

**CiUk eta Masek egin al dezakete atzera edo jadanik berandu da horretarako?**

Mobilizazio handiak horrela jarraitzen badu, CiU eta Mas independentziaren alde egitera behartuta daude. Madrilgo jarrerak ere ez dio ezer laguntzen, PP erakusten ari den jarrerarekin handik ez baitu ezer duinik jasotzeko aukerarik. Alderdi interesengatik CiUk berak ere bultzatu izan du kale mobilizazioa, eta orain olatu horretan harra-patua dago.

**Prest ikusten al duzu Kataluniako gizartea aurrerikusten den egoera nahasirako?**

Espainiak ez du erakutsi Kataluniako egoneza handiari aurre egiteko inongo borondaterik. Alderdi soberanista handiek krisiarekiko irtenbi-

de gisa erakusten dute independentzia, baina uste dut Troika eta Europako Batasunaren menpe legokeen balizko Katalunia independente batek ez lukeela ezertarako balioko. Katalunia ohiko 400 familien esku gera dadin ez da halako prozesurik behar.

**Eta uste duzu mugimendu sozialak nahiko indar duela prozesu soberanistan eragiteko?**

Uste dut baietz. Batetik, azken bi urteetako Diadetak mobilizazioek erakutsi dute mugimendu sozialek neurri batean gaina hartu dietela alderdiei. Aldarrikapen nazionalak eta sozialak banaezinak dira eta Prozesu Konstituziogilea ere logika horren barruan ulertzen da.

**Prozesu Konstituziogilean aipatzen da Kataluniako Legebiltzarreko hurrengo hauteskundeetarako ezkerreko plataforma zabala antolatu nahi dela. ERC, ICV edo CUPekoek ez al dute mesfidantzaz begiratzen zuen ekimena?**

Hurrengo hauteskundeetan aurkezteko tresna berri bat sortzea baino, bere helburua ezkerreko indarrak bilduko dituen tresna politiko-soziala sortzea da, gune horretatik Katalunian beti boterean egon direnei desafio egin ahal izateko. Oro har, zuk aipatu dituzun indar politikoek jarrera egokia erakutsi dute Prozesu Konstituziogilearen aurrean, baina bai, hasieran mesfidantzak sortu zituen. Guk argi dugu oso gaitza dela gizartea instituzioetatik aldatzea, hori kaletik egiten dela uste dugu, borroka sozialetik eta desobedientzietatik. Apirilean abiatu zen prozesua eta harrezkerotik 110 batzar sortu dira hainbat herritan. Hori guztia antolatzen ari gara orain, eta oinarria kalean dela uste badugu ere, argi dugu beti boterean izan diren horiei instituzioetan ere lehia egin behar diegula.

**Orain arte arrakasta handia izaten ari da.**

Gizartean sumindurak gora egin arren, agintzen dutenek eurenarekin jarraitzen dute. M15aren

ondoren, gero eta gehiago ikusten da mobilizazioa ezinbestekoa dela, baina baita ere alternatiba politikoak plazaratzeko gai izan behar dugula. Teresa Forcades moja benediktinoa eta Arcadi Oliveres ekonomilari eta aktibista sozialak plazaratu dute ekimena eta horrek ere sinesgarritasun handia eman dio.



**procésconstituent**

**Prozesu Konstituziogilearen logoa.**

**Erakarri ditzake orain arte prozesu soberanista mesfidantzaz ikusi duten sektoreak?**

Independentista izan gabe, hurbildu zaigun jende askok ikusten du apurketa demokratikoa egiteko aukera askoz handiagoak daudela prozesu independentista honetan beste edozein esparrutan baino. Gure erronka da auzune handietan bizi eta nazio arazoa lehentasunezko gisa ikusten ez duen jendea erakartzea. Erakutsi behar diegu independentzia prozesu hau sekulako aukera izan daitekeela orden sozial berri bat eraikitzeko.

**Inkesten arabera, datozen hauteskundeetan ERCK aurre har diezaioke CiUri.**

ERCK inkestetan gora egiten badu, hori batez ere da independentziarekiko CiUk baino sinesgarritasun handiagoa duelako. Ciudadansek ere sendo egiten du aurrera eta PPk nabarmen behera. Ciudadansek batzen ditu bere diskurtsoan espainolismo gogorra eta PPren murrizketen aurkako diskurtsoa. Horregatik, orain inoiz baino argiago erakutsi behar da independentziaren bidea eta diskurtso soziala uztarturik doazela eta horretan sinesten dugunok hauteskundeetara begira ere bildu egin behar dugula. ERCK gaur egun ez du alternatiba hori eskaintzen, besteak beste, ikusten dugulako nola laguntzen duen CiU gobernuan eta nola ematen dion sostengua beste hainbat gaietan ere.



**Alberto  
López Basaguren**

Konstituzio  
Zuzenbidearen irakaslea  
Euskal Herriko  
Unibertsitatean

## Viatge a Ítaca: bide luzea eta malkarra

**K**ataluniako alderdi gehienek hango etorkizun politikoari buruzko erreferenduma egin nahi dute. ‘Erabakitze eskubidea’ esan diote horri. Itxuraz, herritar gehienek eusten diote eskaera horri. Badirudi azken urteetan sendo handitu dela independentziaren aldekoen kopurua; eta horien arteko askok lasterka egin nahi du independentziarako bidea. Berehala egin nahi dute erreferenduma; eta berehala iritsi nahi dute, inolako ihesbiderik gabe, abertzaleek izaten ohi duten ametsetako Itakara: estatu independente izatera.

Espainiako sistema politikoak, oro har, kontra egin dio eskaera horri arrazoibide bakarrarekin: legezkotasun printzipioarekin. Konstituzioaren kontrakoa omen da halako erreferenduma eta Konstituzioaren kontrakoa, baita ere, Kataluniako independentzia. Beraz, ez legoke gehiago eztabaidatzekorik.

Hargatik, auzia ez da batzuek eta besteek nahiko luketen bezain gardenena.

Auzia ez da ahitzen legezkotasun printzipioaren magalean. Baina nekez egingo da legez kanpo zilegitasun eta sinesgarritasun juridiko eta politiko izan nahi duen erreferendumik. Demokrazia liberaletan –eta, gogoko izan edo ez, hori dugu eremu eta eredu– legezkotasun printzipioa da oinarritzko printzipiorik oinarritzkoena: gainerako printzipioen muga da. Ez dago printzipio demokratikoak legezkotasun printzipiotik kanpo ekar dezakeen ondorioirik. Hori izan da Quebecoko nahiz Eskoziako kasuetan erabat garden ezarri den printzipioa.

Eta independentzia bereziki eskuragaitza da. Alde batetik, nazioarteko zuzenbideak ez du onartzen independentziarako eskubiderik egoera kolonialetatik kanpo eta, muturreko salbuespen gisan, *remedial secession* –beraz, giza eskubideak eta eskubide politikoak era gordinean urratzen diren– kasuetatik kanpo. Azken bide hau, hala ere, bereziki zaila da, Kosovoko kasua erakusten ari den gisan. Eta mendebaleko Europan nekez onartuko da halakorik eredu geopolitikoa aldatzen ez den bitartean.

Bestalde, demokrazia liberal guztietan Estatu barreneko lurralde baten banakuntza Konstituzioaren kontrakoa da. Sistema federala izan edo ez. Ameriketako Estatu Batuetako gerra zibila dugu adibiderik argiena.

Hala ere, garaiak aurrera joan dira. Kanadako eta Erresuma Batuko kasuek erakusten dute “mendebaleko” konstituzio-antolamenduetan eredu berri bat osatzen eta jorratzen ari dela. Baina zer neurriraino aldatu da ereduak?



Kanadako Auzitegi Gorenak eredu berria zabaldu zuen 1998ko Adierazpenean, hausnartu behar izan zuenean Quebecen estatu independente gisa eratze omen zuen eskubideaz. Eta argi ezarri zuen Federazio barreneko ezein lurraldek ez duela independente izateko inolako eskubiderik. Ez dago, beraz, inondik ere, “erabakitze omen”rik.

Baina horrek ez du esan nahi auzia horretan amaitzen denik. Zer egin sistema demokratiko batean lurralde bateko herritar gehienek, argi eta garbi, lurralde horren independentzia nahi baldin badute?

Lurralde baten independentzia Konstituzioaren eraberritzea eskatzen du, nahitaez, independentziari atea espresuki zabaldu behar baita. Bide horretan, sistema demokratiko batean, lurralde bateko herritar gehien-gehienek (*a “clear” majority as a qualitative evaluation*) argi eta garbi erakusten badute haien lurraldea estatu independente bihurtzeko nahia, printzipio demokratikoak eskatzen du, ezinbestez, nahi horri jaramon egitea. Legezotasun printzipioak zilegitasun demokratikoa izan behar baitu oinarri.

Konstituzioaren eraberritzeak borondate ugariaren adostasuna eskatzen du, hala ere. Horretarako, negoziatio politikoari atea zabaltzeko behar-kizuna dute alde guztiek. Honetan datza Kanadako Auzitegiaren berrikuntzarik nabarmenena. Negoziazioan alde bakoitzak haren helburuaren zilegitasun demokratikoa izango du jokoan. Konstituzioaren oinarrian kokatzen diren printzipioek eskatzen dutenaren arabera jokatu beharko dute batzuk eta besteok horri eutsi nahi badiote.

Baina hau politikaren eremua da. Inork ez du bermaturik haren helburua lortuko duenik. Eta irtenbiderik gabeko bidea izan daiteke. Sistema politikoak haren gaitasunaren neurria erakutsiko du bide horretan. Eta, baita ere, nazioarteko mailan duen harrera eta sinesgarritasuna. Arlo hone-

“

**Konstituzioaren eraberritzeak borondate ugariaren adostasuna eskatzen du, hala ere. Horretarako, negoziatio politikoari atea zabaltzeko behar-kizuna dute alde guztiek. Honetan datza Kanadako Auzitegiaren berrikuntzarik nabarmenena”**

**“Bide horretan, sistema demokratiko batean, lurralde bateko herritar gehien-gehienek (*a “clear” majority as a qualitative evaluation*) argi eta garbi erakusten badute haien lurraldea estatu independente bihurtzeko nahia, printzipio demokratikoak eskatzen du, ezinbestez, nahi horri jaramon egitea”**

tan Espainiak arazo berezia du ez baitio aukerarik ematen ere Kataluniako herriari haren nahi politikoa zuzenean adierazteko. Eta hau sailhestu ezinezko azaroa bihurtu daiteke, Quebecen eta Eskoziako adibideen aurrean.

Edonola ere, munduan gertatu dena ikusita, ondorioa ezinbestekoa da: independentziarako bidea erabat luzea, malkarra, lausoa, arriskuz bete eta inolako segurtasunik gabekoa da. Baina hori da Konstantin Kavafisen poema liluragarriak erakutsi ziguna; gutako gehienok, lehenbizikoz, Lluís Llach bertsioaren bidez ezagutu izan genuen poema. Ataka honetan berriro entzun beharko genuke, arretaz, kanta zoragarria; bereziki, Kataluniako independentzia bere-hala eskuratu nahi dutenek. ■



# argia 2014ko egutegia

- Zientzia eta teknologia
- Txisteak
- Denboraren makina
- Bertsoak
- Ezagunek esanak
- Euskara "xuxenean"
- Mikro-ipuinak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak



EGUTEGIA

9€

EGURREZKO  
TAULA

50€

egutegia opari



BURNIZKO  
EUSKARRIA

5€

*Salgai dagoeneko!*

Eskaerak: ☎ 943 371 545 | [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)